

# *Emakume biboteduna*

**Xabier Montoia**

*Gau osoan en nuen lorik eta egunsentira arte ihardun nuen negar-zotinka. Lanera joan behar nuen goiz hartan eta zalantzan egon nintzen joan ez joan, nire egoera ez bait zen hartarako egokiena. Baiezkoa erabaki nuen. Bizitzen jarraitu behar nuen, zer arraio!!.*

*Eta ezin nuen etsi, orduan inoiz baino gutxiago.*

(65.orria)

**Hernani, Udal Liburutegia**  
2017 Otsaila

Xabier Montoia<sup>1</sup> (Gasteiz, Araba, 1955)



Xabier Montoia (euskal idazle emankorra eta musikaria da).

Musikaren munduan, M-ak taldean ibili zen eta aurretik Hertzainak-en, ondoren bakarka ibiltzeko abeslari moduan.

Hertzainak izan zen Xabier Montoiaren lehen rock taldea. 70eko hamarkadaren amaieran Londres bisitatu zuen, eta hango punk mugimenduaren eztanda ikusi eta gero, Gasteizera bueltatu eta Hertzainak taldearen lehen harria ipini zuen, Josu Zabalarekin batera. Taldeko abeslaria izateko, euskara ikasi zuen, Euskal Herriko talde batek benetan punk izateko euskaraz abestu behar zuela uste baitzuen. Hala, Hertzainak taldean hiru urte eman zituen Montoiak -garai hartan Gamma goitzinez deitzen zioten-, 1982. urte arte, taldetik kanpo geratu zen arte. Gasteizko taldearekin diskorik grabatu ez bazuen ere, haren ahotsa entzun daiteke entsegu lokaleko grabazio pirata batzuetan, eta Iker Trebiñok zuzendutako Salda badago dokumentalean ere agertzen da, zuzeneko emanaldi batean. Hertzainak taldetik kanpo geratu zen arren, 1983an beste talde batekin agertu zen Montoia: M-ak. Musikalki garapen handia izan zuen M-ak taldeak; esperimentazioan, elektronikan eta musika beltz sustraidunean oinarritu zituen hasierako pausoak, eta, denboraren poderioz, taldekide aldaketak zirela medio, rock girora hurbildu zen. M-ak taldearen hitz gehienak -garratzak, umoretsuak eta kritikoak- Montoiak sortu zituen, eta musika, berriz, Kaki Arkarazok.

[...]

Musikan ez ezik, literaturan ere nabarmendu da Xabier Montoia. Musikarekin tartekaturiko ibilbidean, ugariak eta goraipatuak izan dira karrikaratu dituen eleberri, ipuin nahiz poesia liburuak. 2007an Euskadi Literatura Saria irabazi zuen, Euskal Hiria sutan (Elkar) ipuin liburuarekin.

---

<sup>1</sup> Hemendik hartuta [2017-01-16]: [https://eu.wikipedia.org/wiki/Xabier\\_Montoia](https://eu.wikipedia.org/wiki/Xabier_Montoia)

# Bibliografia

## Narrazioa

- *Emakume biboteduna* (1992, Susa)
- *Gasteizko hondartzak* (1997, Susa)
- *Baina bihotzak dio* (2002, Elkar)
- *Euskal hiria sutan* (2006, Elkar)
- *Fucking Artists* (2010, Elkar)

## Nobela

- *Non dago Stalin?* (1991, Susa)
- *Hezur gabeko hilak* (1999, Susa)
- *Denboraren izerdia* (2003, Elkar)
- *Blackout* (2004, Susa)
- *Elektrika* (2004, Susa)
- *Golgota* (2008, Elkar)
- *Azken afaria* (2013, Susa)

## Poesia

- *Anfetamiña* (1983, Susa)
- *Likantropo* (1985, Susa)
- *Narratzien mintzoa* (1988, Susa)
- *XX. mendeko poesia kaierak - Xabier Montoia* (2000, Susa): Koldo Izagirreren edizioa
- *Bingo (poemak 1981-2000)* (2005, Pamiela)

## Kronika

- *Plastikozko loreak erregearentzat* (1998, Susa)

## Musika

### M-ak

- *M-ak* (IZ, 1983)
- *Emeak, eta Arrak* (Nuevos Medios, 1986)
- *Zuloa* (IZ, 1987)
- *Barkatu Ama* (IZ, 1989)
- *Gor* (Zarata, 1990)

## Bakarka

- *Beti Oporretan* (Esan Ozenki, 1995).
- *Hemen* (Esan Ozenki, 1997).
- *Lagunak, Adiskideak... Eta Beste Hainbat Etsai* (Esan Ozenki, 1999).
- *Ni ez naiz Xabier Montoia* (Metak, 2002).
- *Deus Guti* (Autoekoizpena-Internet, 2005).
- *Montoiaaren mundu miresgarria* (Bidehuts, 201


## Kolaborazioak

- *Ikastola berria eraik dezagun Zuberoan* (Esan Ozenki, 1997).
- *Bonberenea oztopo guztien gainetik* (Bonberenea Ekintzak, 1997).
- *Ehungarrenean hamaika. Lauaxeta 2005* (Gaztelupeko Hotsak, 2005).
- *Txinaurriak. Mikel Laboari ikasitako kantuak* (Bidehuts, 2010).
- *Hala Bedi irratia 30 urte kolpez kolpe!* (Bonberenea Ekintzak, 2013).

## Sariak

2007an euskarazko Euskadi Literatura Saria irabazi zuen Euskal hiria sutan lanarengatik.

# Emakume biboteduna



## Sipnossia

Hamaika ipuin, desamodioakoak gehienak, bakarkadadera kondenatuko gizon eta emakueeenak denak.

## Kritikak<sup>2</sup>

Indarra eta bizitasuna Patxi Zubizarreta / *Egin*, 1993-01-10

Nemesio Etxaniz apaizak orain 29 urteko *Izotz Kandekatua* en sarreran, hau idatzi zuen: “Euskal liburuak geienetan ‘xeru-xeru’ agertu ditugula; denak onak, txintxoak, ia griñarik gabeko giza-emakumeak; eta orrek galdu dik gure eskribitzailleen indarra ta bizitasuna”. Hitz hauexek gogoratu zaizkigu Xabier Montoiaren *Emakume biboteduna* irakurtzen hasi garenean, Montoiarena ez baita hizkera “xeru-xeru” horietakoa.

Aipa dezagun, esate batera, pasarte ttiki hau: “Gasteiztar peto eta jator guzti haien, hiriaren ezaugarri eta adierazgarrien jabe zirenak. Hiria bezain makur, zuri, uzkur eta zirtzilak. Alaves petralaren jarraitzaileak, blusa izandakoak, jaien hasieran zapi gorria lepoan lotu eta seiak jotzerakoan purua zintzo bizten zutenetarikoak. Gure aita bezalakoak, bera bezain fidagaitz, zeken eta ostijale, bera bezain aluak”.

Ikusi bezala, Montoia behin berriro indarrez eta bizitasunez plazaratu zaigu. Etxanizek eskatzen zuen grina eta benekotasuna Montoiaren hamaika ipuinotan inon baino hobeto ageri dira: haurren lehendabiziko deskubrimenduak, sexua, infidelitateak, droga, telefonoaren presentzia obsesiboa... Eta Euskal Herrian kokatutako eskenatoki literario horretako gauza bakoitzak, sentimendu eta plazer nahiz desplazer bakoitzak bere izena du. Gogora datorkigu behin Garaziko trinkete ondoan dagoen horma bateko esaldia: “Arren, dakizuna ez ixuri hemen”; Montoiak expresio zaharkituak alde batera utzi eta besterik gabe “Ez egin txizarik hemen” dio.

Bai, Montoiaren lan honetan ere biziak eta izenak uztarturik agertzen zaizkigu. Are gehiago esango genuke: sakontasun psikologikoa bere obran gero eta handiagoa den bezala, bere lanean badago gero eta lortuago dagoen

<sup>2</sup> Hemendik hartuta [2017-01-17]: <http://kritikak.armiarma.eus/>

beste sakontasun mota bat ere, estilistikoa edo dei dezakeguna. Ipuin hauek mundu literario koherentea eskaintzen digute, eta estilo finkaketa batez horniturik.

Hamaika Edorta Jimenez / *Euskaldunon Egunkaria*, 1992-12-13

Hamaika errelato bildu ditu Xabier Montoiak “Emakume biboteduna” izeneko liburuan, eta, zenbakiaren adiera bakoitzaren haritik, Gasteizko idazleak aurrerantzean ere hamaikatxo istorio eta kontu ekarri behar digula begitandu zait, beste ezeren gainetik literaturgile zaina nabari bait zaio berriro ere.

Liburuek azalean barrukoaz ezer adierazi behar dutela uste duenarentzako esan beharreko da “emakume biboteduna” hitz-multzoak barruan irakurri ahal izango dugunaren laburbiltze modura funtzionatzen duela, hots, protagonistarik gehienak emakumezkoak direla, batetik, eta narratzailearen ikuspegia ezohizkoa dela, bibotedun emakumea bezain harrigarria.

Bikoteen gorabeherak azaltzeari ekin dio Xabier Montoiak, gorroto eta maitasun dosiak eskuetan, Dorothy Parker-en “Bikoteen bakardadea” liburuaren oihartzunak ekarri dizkidan eran, eguneroko porrot etengabe eta errepikatuen kronika moduko honetan. Inor gutxi salbatzen da, narratzailearen hitzak bisturiarena egiten bait du, trebetasunez pertsonaien perfiletan, prosa bera beti-beti borobiltzea lortzen ez badu ere. Baino hain borobil egin izan balu, oraindio pozez txaloka egongo nintzateke, liburu perfektu baten aurrean. Haatik, bada, hasierako hori.

Amaitzeko, ohar bi, laburrak. Lehena, ipuin borobila zer den horri buruz. Orain Guru egin duten harakoak esan zuen ipuineta amainerak duen garrantziaz. Montoiak zenbait ipuineta itxuraz amaiera barik bukatzen du bere zeregina. Atsegin dut teknika hori. Ipuinik borobilenak era horretara moztuak dira. Bigarren oharra, aldez aurretik erabaki dutela oraingo Azoka honetan pisuzko lanik ez dagoela. Oraindio ez dute liburu hau irakurri beste Guru horiek.

Jakin aldizkarian elkarrizketa<sup>3</sup>. Daniel Escribano (2015/09/30)

## «Batzuei oso ondo etorri zaie Euskal Hiriaren kontzeptua, politika erreakzionarioak eta beren interesen aldekoak bultzatzeko eta zuritzeko»

[...]

*Euskal Hiria sutan bilduma zela-eta, Euskadi Saria eman zizuten. Zer iritzi duzu Euskadi Sariez?*

Dirua, zoragarria. Nik ere ordaintzen dut sari hori; ematen didatenean, eta ematen ez didatenean.

Eta sariak esleitzeko irizpideez?

Sariez, oro har –ez bakarrik Euskadi Sariaz–, pentsatzen dudanean, saria ematen duenak, benetan, bere buruari ematen dio saria, idazle baten bitartez, edo pintore baten edo ez dakit noren bitartez. Publizitate-mota bat da, merkea, gainera: «begiratu, nik kultura bultzatzen dut, ni mezenas naiz». Eta Euskadi Saria, sainete bat, asuntu osoa, epaimahaikidekoak, zein egoten den, nola beti izaten diren berdintsuak. Hemen, beti baimena eman dutenak: «hau, bai, hau, ez; hau guitarra da, hau, ez». Eta, batez ere, neure burua ikustea lehendakariarekin batera... «Eskerrik asko», kamerak, jatorrismo hori, «zer ondo gauden hemen, denok batera...».

Zer demokratak garen...

Hori da.

«Disidentzia toleratu, eta saritu ere egiten dugu».

Badakit Ibarretxe haserretu zela, eta esan zuen zerbait diskursoan nire kontra, nire izena aipatu gabe, zeharka, ez agertzeagatik; ez liburuarengatik (seguru asko, liburua ez zuen irakurri ere egin). «Sari nazionala da, nola egin muzin horri?».

Jon Alonsok idatzi zuen artikulu sonatu bat Euskadi Sarien inguruan.

Ados nengoen %100ean.

---

<sup>3</sup> Elkarrizketa osoa hemen [2017-01-16]: <http://www.jakin.eus/gogoeta/elkarrizketak/xabier-montoia/106>

# Xabier Montoia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean

## En la Red de Lectura Pública de Euskadi



[3 Itzuli](#)

[Alén da fronteira / Sete poetas vascos ; traducción para galego Isaac Xubín \(2012\)](#)

**Argitaratzalea:** Pontevedra : Kalandraka, [2012]

**Deskripzio fisikoa:** 145 p. ; 21 cm

**ISBN:** 9788415250371

**Egileak:** Anselmi, Luigi (1954-)Atxaga, Bernardo (1951-)Gerediaga, Jon (1975-)Irrastortza, Tere (1961-)Lete, Xabier (1944-2010)Montoia, Xabier (1955-)Sarrionandia, Joseba (1958-)Xubín, Isaac



[3 Itzuli](#)

[Antología : narrativa vasca actual. \(I\) / Pako Aristi, Itxaro Borda, Fernando Luis Chivite ...\[et al.\] \(2013\)](#)

**Argitaratzalea:** Iruña : Pamiela, D.L. 2013

**Deskripzio fisikoa:** 158 p. ; 22 cm

**ISBN:** 9788476817971

**Egileak:** Aristi, Pako (1963-)Borda, Itxaro (1959-)Chivite, Fernando Luis



[4 Itzuli](#)

[Paul Celan / Paul Celan ; itzulpenea, Xabier Montoia \(2016\)](#)

**Argitaratzalea:** Zarautz : Susa, 2016

**Deskripzio fisikoa:** 60 or. ; 21 cm

**ISBN:** 978-84-92468-84-3

**Egileak:** Montoia, Xabier (1955-)



[2 Itzuli](#)

[Ehunzarrenean hamaika \[Soinu-qrabazioa\] : Lauaxeta 2005 \(2005\)](#)

**Argitaratzalea:** Soraluze : Gaztelupeko hotsak : Mungialdeko Udalak, L.G. 2005

**Deskripzio fisikoa:** 1 disko (CD-DA)(44 min., 49 min.)

**Erakundeak:** Mungialdeko Udalak



[2 Itzuli](#)

[Entzun! \[Soinu-qrabazioa\] : bilduma 2011 \(2011\)](#)

**Argitaratzalea:** [Iruñea] : Entzun!, [2011]

**Deskripzio fisikoa:** 1 disko (CD-DA) (ca. 67 min.)



[2 Itzuli](#)

[Esan ozenki records \[Soinu-qrabazioa\] / \[2011\] \(2011\)](#)

**Argitaratzalea:** [Irun] : Esan Ozenki records, [2011]

**Deskripzio fisikoa:** 1 diska (78 min.) + 1 libk. (20 or.; 11 cm)



[2 Itzuli](#)

[\[Escaparate\]. \(2002\)](#)

**Argitaratzalea:** 2002.

**Titulu-aldaerak:** BilbaoPâergola



[2 Itzuli](#)

[Gora Herriak \[Grabación sonora\] \(1999\)](#)

**Argitaratzalea:** Irun : Esan Ozenki, L. G. 1999

**Deskripzio fisikoa:** 1 disco compacto (77 min.)



[3 Itzuli](#)

[Haginetako mina : Euskal gatazkari buruzko ipuin antologoa bat / Anjel Lertxundi... \[et al.\]; hautaketa eta hitzaurrea Mikel Soto \(2009\)](#)

**Argitalpena:** 2. argt

**Argitaratzalea:** Tafalla : Txalaparta, 2009

**Deskripzio fisikoa:** 332 or. ; 20 cm

**ISBN:** 978-84-8136-530-6

**Egileak:** Lertxundi, Anjel (1948-)Soto, Mikel



[2 Itzuli](#)

[Hala bedi Irratia : 30 urte kolpez kolpe! \[Soinu grabazioa\] \(2013\)](#)

**Argitaratzalea:** Tolosa : Bonberenea, [2013]

**Deskripzio fisikoa:** 1 diska (CD-DA)(56 min.; 36 seg.)



[2 Itzuli](#)

[Independentzia 10 urtez \[Soinu-grabazioa\] = 10 años de independencia = 10 ans d'independance = 10 years of independence \(2001\)](#)

**Argitaratzalea:** Irun : Esan Ozenki Records, D.L. 2001

**Deskripzio fisikoa:** 2 disko (CD-DA) (ca. 78, 77 min.) + 1 libx. (24 or. ; 12 cm)

**Titulu-aldaerak:** 10 años de independencia10 ans d'independance10 years of independenceDiez años de independenciaDeu ans d'independanceTen years of independence



[2 Itzuli](#)

[Independentzia 5 urtez \[Grabación sonora\] : esan ozenkii \(1996\)](#)

**Argitaratzalea:** Irun : Esan ozenki records, [1996]

**Deskripzio fisikoa:** 1 disco (CD-DA)



**Mikel Laboa (1934-2008)** [2 Itzuli](#)

[Txinaurriak \[Soinu-grabazioa\] : Mikel Laboari ikasitako kantuak \(2010\)](#)

**Argitaratzalea:** [Irun] : Bidehuts, [2010]

**Deskripzio fisikoa:** 2 disko (CD-DA) + 1 libx



**Mikel Laboa (1934-2008)** [2 Itzuli](#)

[Xoriek \[Grabación sonora\] / Mikel Laboa \(2005\)](#)

**Argitaratzalea:** Donostia : Elkar, L.G. 2005

**Deskripzio fisikoa:** 1 disco compacto (CD-AD) : digital + folleto (18 p.)

**Egileak:** Salvador, Iñaki, arrZeberio, Juanxo, arr



[4 Itzuli](#)

[Metak 2001-2003 \[Soinu-grabazioa\] \(2004\)](#)

**Argitaratzalea:** Irun : Metak, 2004

**Deskripzio fisikoa:** 1 disko (CD-DA) (ca. 79 min.) : digitala + liburuxka [48 or.] + DVD-Bideoa



**Xabier Montoia (1955-)** [4 Itzuli](#)

[Anfetamiña : sex pistols-i / Xabier Montoia \(1983\)](#)

**Argitaratzalea:** [S.I.] : Susa, L.G. 1983

**Deskripzio fisikoa:** 80 or. ; 20 cm

**ISBN:** 84-300-9873-9



**Xabier Montoia (1955-)** [4 Itzuli](#)

[Azken afaria / Xabier Montoia \(2013\)](#)

**Argitaratzalea:** Zarautz : Susa, 2013

**Deskripzio fisikoa:** 232 or. ; 22 cm

**ISBN:** 978-84-92468-49-2



**Xabier Montoia (1955-)** [4 Itzuli](#)

[Baina bihotzak dio / Xabier Montoia \(2002\)](#)

**Argitaratzalea:** Donostia : Elkar, L.G. 2002

**Deskripzio fisikoa:** 321 or. ; 22 cm

**ISBN:** 84-8331-819-9



**Xabier Montoia (1955-)** [4 Itzuli](#)

[Beti oporretan \[Grabación sonora\] / Xabier Montoia \(1995\)](#)

**Argitaratzalea:** Irun : Esan Ozenki, L. G. 1995

**Deskripzio fisikoa:** 1 disco compacto (44 min.)



**Xabier Montoia (1955-)** [4 Itzuli](#)

[Bingo : poemak 1981-2000 / Xabier Montoia \(2005\)](#)

**Argitaratzalea:** Iruña : Pamiela, L.G. 2005

**Deskripzio fisikoa:** 214 or. ; 22 cm

**ISBN:** 84-7681-465-8

**Montoia, Xabier (1955-)** [6 Itzuli](#)  
[Blackout / Xabier Montoia \(2004\)](#)

**Argitaratzaila:** Zarautz ; Iruñea ; Larrabetzu : Susa, 2004  
**Deskripzio fisikoa:** 179 or. ; 22 cm  
**ISBN:** 84-95511-61-4

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Denboraren izerdia / Xabier Montoia \(2003\)](#)

**Argitaratzaila:** Donostia : Elkarlanean, L.G. 2003  
**Deskripzio fisikoa:** 221 or. ; 22 cm  
**ISBN:** 84-8331-957-8

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Elektrika : Hilen bizimoldea trilogiako hirugarren liburua / Xabier Montoia \(2004\)](#)

**Argitaratzaila:** Zarautz : Susa, 2004  
**Deskripzio fisikoa:** 184 or  
**ISBN:** 849551169X

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Emakume biboteduna / Xabier Montoia \(1992\)](#)

**Argitaratzaila:** Lasarte-Oria [etc.] : Susa, 1992  
**Deskripzio fisikoa:** 218 or. ; 20 cm  
**ISBN:** 84-86766-47-2

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Euskal hiria sutan / Xabier Montoia \(2006\)](#)

**Argitaratzaila:** Donostia : Elkar, L.G. 2006  
**Deskripzio fisikoa:** 417 or. ; 22 cm  
**ISBN:** 84-9783-410-0

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Fucking artists : eta beste zenbait kontakizun / Xabier Montoia \(2010\)](#)

**Argitaratzaila:** Donostia : Elkar, 2010  
**Deskripzio fisikoa:** 252 p. ; 22 cm  
**ISBN:** 9788497839419

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Gasteizko hondartzak / Xabier Montoia \(2010\)](#)

**Argitaratzaila:** Zarautz : Susa, 2010  
**Deskripzio fisikoa:** 325 or. ; 22 cm  
**ISBN:** 978-84-92468-21-8

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Golgota / Xabier Montoia \(2008\)](#)

**Argitalpena:** [1. argit.]  
**Argitaratzaila:** Donostia : Elkar, 2008  
**Deskripzio fisikoa:** 228 or. ; 22 cm  
**ISBN:** 978-84-9783-635-7

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Hemen \[Grabación sonora\] / Xabier Montoia \(1997\)](#)

**Argitaratzaila:** Irun : Esan Ozenki, L.G. 1997  
**Deskripzio fisikoa:** 1 disco compacto

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Hezur gabeko hilak / Xabier Montoia \(1999\)](#)

**Argitaratzaila:** Zarauz ; Iruñea : Susa, [1999]  
**Deskripzio fisikoa:** 203 p. ; 23 cm  
**ISBN:** 84-86766-95-8  
**Deskripzio fisikoa:** 203 or. ; 22 cm  
**ISBN:** 84-86766-95-8

**Montoia, Xabier (1955-)** [4 Itzuli](#)  
[Hilen bizimoldea. 1., Hezur gabeko hilak / Xabier Montoia \(1999\)](#)

**Argitaratzaila:** Zarautz : Susa, 1999  
**Deskripzio fisikoa:** 203 p. ; 22 cm  
**ISBN:** 84-86766-95-8